

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2024ko abendua

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak % 0,3 jaitsi dira 2024an; apartamentu turistikoetan, berriz, % 21,4 igo dira

Atzerriar jatorriko ostatu-gauen kopuruaren urteko hazkundera % 3,2koa izan da landa-ostatueta eta % 31,5koa apartamentu turistikoetan

Euskal AEko landa-ostatueta, 2024. urte osoan, okupazio-aldagaiek 2023. urteko emaitzen antzekoak izan dituzte: % 0,3 jaitsi dira sarrerak eta % 0,2 gualdiak. Horrela, Eustaten datuen arabera, landa-ostatueta sarrerak 172.341 izan dira 2024an, eta gualdiak 445.501.

2024an sarrerak % 8,2 gehitu dira Araban; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, jaitsi egin dira (% 1,8 eta % 2,7, hurrenez hurren). Antzera, Araban gualdiak % 3,0 igo dira 2024an; Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, % 0,1 eta % 2,1 jaitsi dira, hurrenez hurren.

Atzerriko bisitariak Euskal AEko mota horretako establezimenduetako sarrera guztien % 25,9 izan ziren 2024an, 2023an baino % 3,2 gehiago.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024	p/p-1 (%)	2024	p/p-1 (%)	2024	2023	2024	p.p. *	2024	p.p. *
EUSKAL AE	172.341	-0,3	445.501	-0,2	2,58	2,58	29,2	0,3	33,9	1,1
Estatukoak	127.775	-1,5	332.317	-3,2	2,60	2,64	-	-	-	-
Atzeritarrak	44.566	3,2	113.184	9,6	2,54	2,39	-	-	-	-
Araba/Álava	32.975	8,2	76.370	3,0	2,32	2,43	20,1	0,8	24,6	2,2
Estatukoak	27.598	7,3	62.139	-0,5	2,25	2,43	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.377	12,7	14.231	21,3	2,65	2,46	-	-	-	-
Bizkaia	51.593	-2,7	133.210	-2,1	2,58	2,56	30,8	0,7	35,5	1,6
Estatukoak	37.861	-5,2	99.232	-5,2	2,62	2,62	-	-	-	-
Atzeritarrak	13.732	4,7	33.978	8,4	2,47	2,39	-	-	-	-
Gipuzkoa	87.773	-1,8	235.921	-0,1	2,69	2,64	33,1	-0,2	37,7	0,1
Estatukoak	62.316	-2,8	170.946	-2,9	2,74	2,75	-	-	-	-
Atzeritarrak	25.457	0,7	64.975	8,0	2,55	2,38	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2025eko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landa-ostatueta batez besteko egonaldia 2,58 egunekoa izan da, 2023koaren berdina. Okupazio-maila, bestalde, % 29,2an kokatu da plazen arabera neurtuz gero, eta % 33,9an gelen arabera neurtuz gero: aurreko urtearen aldean ehuneko 0,3 eta 1,1 puntu igo dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko **apartamentu turistiko**en 2024. urteko **balantzean** hobekuntza ikusten da 2023tik, bai sarreraren kopuruan, bai gaudien kopuruan. Guztira 214.157 sarrera eta 719.936 gaudi izan dira urte osoan, eta 2023. urtearekiko urteko hazkundeak % 21,1 eta % 14,8ra iritsi dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gaudiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. 2024

	Sarrerak		Gaudiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamendua	
	2024	p/p-1 (%)	2024	p/p-1 (%)	2024	2023	2024	p.p. *	2024	p.p. *
EUSKAL AE	214.157	21,1	719.936	14,8	3,36	3,55	39,4	2,3	65,9	3,6
Estatukoak	130.884	15,3	437.684	10,8	3,34	3,48	-	-	-	-
Atzerritarrak	83.273	31,5	282.252	21,7	3,39	3,66	-	-	-	-
Araba/Álava	11.033	-32,0	108.899	11,1	9,87	6,04	28,6	3,2	77,5	14,5
Estatukoak	9.369	-32,4	74.720	4,2	7,98	5,17	-	-	-	-
Atzerritarrak	1.664	-29,5	34.179	29,9	20,54	11,15	-	-	-	-
Bizkaia	142.851	29,1	326.261	22,8	2,28	2,40	39,9	2,5	52,5	2,9
Estatukoak	87.370	22,9	189.954	16,6	2,17	2,29	-	-	-	-
Atzerritarrak	55.481	40,2	136.307	32,5	2,46	2,60	-	-	-	-
Gipuzkoa	60.274	20,9	284.776	8,1	4,72	5,28	45,3	1,1	75,1	1,3
Estatukoak	34.145	19,8	173.010	7,8	5,07	5,63	-	-	-	-
Atzerritarrak	26.129	22,2	111.766	8,6	4,28	4,81	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2025eko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2024an guztira jasotako gaudiak igo egin dira hiru lurraldeetan 2023an zenbatetsitakoekin alderatuta, intentsitate desberdinarekin bada ere. Sarreraren kasuan, ordea, portaera ez da homogeneoa izan. Apartamentu turistikoetako sarrerak, guztira, % 32,0 jaitsi dira Araban; Bizkaian, berriz, % 29,1 igo dira, eta Gipuzkoan % 20,9. Ostatu-gauen kopuruaren hazkundera, bestalde, orokorra izan da: % 8,1 Gipuzkoan, % 11,1 Araban eta % 22,8 Bizkaian.

Atzerritar jatorriko sarrerek urtean zehar % 31,5eko igoera izan dute. Euskal AEko apartamentu turistikoetan izandako guztizkoaren % 38,9 izan ziren 2024an, 2023an izandako % 35,8aren gainetik.

Plazen okupazio mailak ehuneko 2,3 puntutan gaintitu du 2023koa; apartamentuen okupazio mailak, berriz, 3,6 puntu egin du gora, eta 2024an % 39,4 eta % 65,9 izan dira, hurrenez hurren.

Euskal AEko **aterpetxe turistiko**ei buruzko datuak argitaratu diren lehen urtea igaro da, eta **2024ko urteko balantzean** honako hau ikusi da: aurreko urtearen aldean % 12,6ko hazkundera izan da sarreraren kopuruan eta % 12,8koa gaudien kopuruan, 250.183 sarrera eta 452.561 ostatu-gau izan baitira urte osoan. Sarreraren urteko igoera % 18,7koa izan da Bizkaian, % 8,3koa Gipuzkoan, eta Araban, berriz, % 28,3koa. Ostatu-gauak, bestalde, urte osoan % 19,1 egin dute gora Bizkaian eta % 7,3 Gipuzkoan, baina Araban % 24,8 egin dute behera.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)	
							plazen arabera	
	2024	p/p-1 (%)	2024	p/p-1 (%)	2024	2023	2024	p.p. *
EUSKAL AE	250.183	12,6	452.561	12,8	1,81	1,81	38,3	2,5
Estatukoak	101.704	8,0	185.416	4,2	1,82	1,89	-	-
Atzerritarrak	148.479	16,0	267.145	19,7	1,80	1,74	-	-
Araba/Álava	5.513	-28,3	9.391	-24,8	1,70	1,62	16,9	-8,2
Estatukoak	5.021	-23,1	8.389	-23,3	1,67	1,68	-	-
Atzerritarrak	492	-57,5	1.003	-35,3	2,04	1,34	-	-
Bizkaia	141.680	18,7	264.366	19,1	1,87	1,86	43,4	5,4
Estatukoak	59.355	13,1	108.208	7,7	1,82	1,91	-	-
Atzerritarrak	82.324	23,0	156.159	28,6	1,90	1,81	-	-
Gipuzkoa	102.990	8,3	178.803	7,3	1,74	1,75	34,7	0,4
Estatukoak	37.328	6,2	68.820	3,5	1,84	1,89	-	-
Atzerritarrak	65.663	9,6	109.984	9,8	1,67	1,67	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Data 2025eko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistikoko Hartzaileren Inkesta

2024ko abendua

Urteko azken hilabetea, hau da, 2024ko abenduan, Euskal AEko **landa-ostatu**etako sarrerak eta gualdiak aurreko urteko abenduan baino % 21,4 eta % 16,7 txikiagoak izan dira, 9.077 eta 21.410, hurrenez hurren.

2024ko abenduan, sarreren % 90,7 eta gualdien % 86,9 Estatutik etorri dira.

Araban 2.384 sarrera erregistratu dira, aurreko urteko abenduan baino % 26,5 gutxiago; Bizkaian 2.463 sarrera erregistratu dira, % 23,1eko jaitsierarekin, eta Gipuzkoan aurreko urteko abenduan baino % 17,1 gutxiago, 4.230 gutzira.

Gaualdietan antzeko portaera izan da. Urte arteko % 4,0ko jaitsieraren ondoren, Bizkaian 6.231 gualdira iritsi da, Araban % 16,2koa eta Gipuzkoan % 23,8koa izan da jaitsiera; Araban 5.926 gualdi eta Gipuzkoan 9.253.

Euskal AEko landa-ostatueta sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Abendua 2024

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	2023/12	2024/12	p.p. *	2024/12	p.p. *
EUSKAL AE	9.077	-21,4	21.410	-16,7	2,36	2,23	17,4	-3,6	20,7	-3,2
Estatukoak	8.237	-19,8	18.597	-20,1	2,26	2,27	-	-	-	-
Atzerriarrak	840	-34,4	2.813	16,3	3,35	1,89	-	-	-	-
Araba/Álava	2.384	-26,5	5.926	-16,2	2,49	2,18	18,1	-4,4	23,0	0,8
Estatukoak	2.319	-25,9	4.871	-29,8	2,10	2,22	-	-	-	-
Atzerriarrak	65	-42,0	1.055	687,3	16,23	1,20	-	-	-	-
Bizkaia	2.463	-23,1	6.231	-4,0	2,53	2,03	18,4	-0,6	21,0	-1,4
Estatukoak	2.331	-13,8	5.838	7,6	2,50	2,01	-	-	-	-
Atzerriarrak	132	-73,5	393	-63,1	2,98	2,14	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.230	-17,1	9.253	-23,8	2,19	2,38	16,4	-5,1	19,1	-6,6
Estatukoak	3.587	-19,0	7.888	-27,8	2,20	2,46	-	-	-	-
Atzerriarrak	643	-4,2	1.365	12,0	2,12	1,82	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 2,36 egunekoa izan da abenduan, hau da, 2023ko hilabete berean izandako 2,23 eguneko batez besteko egonaldia baino handiagoa.

Plazen eta gelen arabera okupazio-mailak ehuneko 3,6 eta 3,2 puntu jaitsi dira, hurrenez hurren, eta % 17,4an kokatu dira, plazen arabera neurtuta, eta % 20,7an gelen arabera neurtuta.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2024ko abenduan** sarrerak eta gaualdiak 14.800 eta 54.424 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko abenduaren aldean, sarrerak % 28,3 gehitu dira eta gaualdiak % 15,7.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Abendua 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	2023/12	plazen arabera		apartamentuak	
	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	2023/12	2024/12	p.p. *	2024/12	p.p. *
EUSKAL AE	14.800	28,3	54.424	15,7	3,68	4,08	32,3	0,5	59,8	1,5
Estatukoak	11.047	23,3	38.617	13,7	3,50	3,79	-	-	-	-
Atzerriarrak	3.753	45,9	15.806	20,8	4,21	5,09	-	-	-	-
Araba/Álava	758	-7,5	8.709	0,3	11,49	10,59	26,3	0,1	73,1	5,1
Estatukoak	692	-8,6	5.857	0,0	8,46	7,73	-	-	-	-
Atzerriarrak	66	5,6	2.852	0,9	31,00	31,00	-	-	-	-
Bizkaia	10.561	36,8	24.893	41,3	2,36	2,28	31,1	3,7	41,6	5,6
Estatukoak	7.975	31,8	18.333	39,0	2,30	2,18	-	-	-	-
Atzerriarrak	2.586	55,0	6.560	48,2	2,54	2,65	-	-	-	-
Gipuzkoa	3.480	16,2	20.822	0,4	5,98	6,93	37,6	-3,5	75,5	-0,2
Estatukoak	2.379	10,5	14.427	-3,3	6,06	6,93	-	-	-	-
Atzerriarrak	1.101	30,7	6.395	9,7	5,81	6,92	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistikoko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 25,4 eta gualdi guztien % 29,0 atzerriarrak izan dira, urte arteko % 45,9ko eta % 20,8ko igoeren ondoren, hurrenez hurren.

Batez besteko egonaldia 3,68 egunekoa izan da 2024ko abenduan, hau da, 2023ko abenduan (4,08 egun) baino txikiagoa. Lurralde historikoei dagokienez, batez besteko egonaldia 2,36 egunekoa izan da Bizkaian, 5,98 egunekoa Gipuzkoan eta 11,49 egunekoa Araban.

Euskal AEko plazen okupazio maila % 32,3koa izan da, eta % 59,8ra iritsi da apartamentuaren arabera neurtuta. Horrek ehuneko 0,5 puntuko igoera dakar plazen okupazioaren kasuan, eta ehuneko 1,5 puntuko apartamentuen okupazioaren kasuan.

Aterpetxe turistikoetan, 2024ko abenduan, sarrerak eta gualdiak 8.240 eta 15.650 izan dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko abenduaren aldean, kopuru horiek % 7,2ko jaitsiera adierazten dute sarreren kasuan eta % 3,4koa gualdien kasuan.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Abendua 2024

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	m/m-12 (%)	2024/12	2023/12	2024/12	p.p.
EUSKAL AE	8.240	-7,2	15.650	-3,4	1,90	1,82	18,5	-1,4
Estatukoak	4.314	-11,0	8.479	-5,2	1,97	1,85	-	-
Atzerritarrak	3.926	-2,8	7.170	-1,2	1,83	1,80	-	-
Araba/Álava	591	-1,4	814	-16,7	1,38	1,63	16,3	-4,3
Estatukoak	514	5,0	737	-10,1	1,43	1,67	-	-
Atzerritarrak	77	-29,7	77	-51,1	1,00	1,44	-	-
Bizkaia	4.268	-18,0	8.337	-10,0	1,95	1,78	18,4	-3,5
Estatukoak	2.305	-22,1	4.278	-16,2	1,86	1,73	-	-
Atzerritarrak	1.963	-12,8	4.059	-2,4	2,07	1,85	-	-
Gipuzkoa	3.381	9,9	6.499	9,0	1,92	1,94	19,1	1,7
Estatukoak	1.495	6,9	3.464	14,7	2,32	2,16	-	-
Atzerritarrak	1.886	12,4	3.034	3,2	1,61	1,75	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabeteaz zikloko urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Urtarrilaren 24a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Informazio-oharra

Landa Ostatuen ETHren erantzun-tasa % **77,3koa** izan da, Apartamentu Turistikoena % **77,1koa** eta % **78,5koa** Aterpetxe turistikoena kasuan 2024ko abenduan.

Eustatek eskerrak eman dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: Tlf: 945 01 75 62